



Belardiak eta basoak zeharkatuz, eskualdeko baserri, baseliza, karobi eta natur eremua ezagutzeko aukera paregabea

Pausoka eguna, egun osoko ospakizuna igandean Urnietan



Pausoka elkarteko kideek ospakizunaren xehetasunak eskaini zituzten Urnietan aurreko astean, eskualdeko alkate eta Udal ordezkarien parte hartzearekin.

Ehunka lagun espero dituzte aurtengo Pausoka egunean, Urnietan igande honetan ospatuko dena.

Goizean aurrekuarekin hasi eta tailerrez eta ikuskizunez beteriko eguna izango da. Paella jate erraldoia antolatuko dute, bisitari guztiek dastatu ahal izango dutena. Urnietako Plaza Etxeberriko Eder liburudendan dagoeneko txartelak salgai daude, baina egunean bertan ere txartelak eskuratzeko aukera izango da. Iaz, hiru mila lagun igaro ziren Hernaniko gunetik, eta aurten antolatzaileek kopuru hori gainditzeko helburua dute. Txosna eta talo postuak, tailerrak, herri bazkaria... bolondres lanetan berrehun lagun arituko dira. Pausoka elkarteko kideak egun hauetan tarte guztiak baliatzen ari dira azken xehetasunak lortzen, eta ospakizuna sustatzen. Maiteker Requejo hedabideen alorraz arduratzen da. Elkartea ezagutarazten jarraitu eta indartzen joateko finantziazioaren premia dute. Horiexek dira ospakizunaren helburuetakoak.

Iaz Hernanin egin zenuten, eta aurten Urnietan. Buruntzaldea mailako festatatzat hartu behar al dugu igande honetakoa?

Maiteker Requejo. Gipuzkoa mailako ospakizuna izango da. Pausoka egunari lotutako unitate didaktikoa probintzia mailako ikastetxe askotan lantzen ari dira. Baita Hendaian ere. Eremu zabal bat hartzen ari gara eta eragin eremua eskualdetik haratago doa. Iaz, parte hartu zuten haurrei marrazki bana egiteko eskatu genien. Aurten unitate didaktiko berezi bati jarraituz, gaztetxoek galtzerdi ezberdinak egin behar dituzte. Egunean bertan galtzerdi horiek hartuta gizakatea egingo dugu Urnietako kaleetan zehar.

Helburu nagusia zein izango da?

M.R. Hernanin dugun egoitza nagusian zerbitzu gehiago ematen jarraitu behar dugu. Astero-astero hazten doa gure kideen kopurua. Sartu den azken profesionala psikologoa da. Une honetan hiru fisio, bi terapeuta okupazional, bi logopeda eta psikologo bat ditugu. Kontratatuak daude eta hori ordaindu behar da. Gura-soek zati bat ordaintzen dute

“Gure esperientziaren arabera, gure egoeran ez diren familiek horrelako ospakizunetan esperientzia bikaina eraman ohi dute etxera”

baina gainerakoa Pausoka elkarteak lortu behar du. Merchandisinga, Pausoka egunaren antolaketa, egutegiak... Guk sortutako baliabideekin eta dirulaguntzekin finantzatzen da gure elkarte.

Ume bat elkartean sartzen den bakoitzean balorazioa egiten dugu, eta esku hartzea aurrera eraman ahal izateko baliabideak ba ote ditugun aztertu behar dugu. Ikusi behar da aulki eta material berezia behar duen; eta horren arabera material berria erostea baloratzen da.

Zer espero duzue igandeko ospakizuneari?

M.R. Kanpainak Gipuzkoa mailako hedapena du eta jende asko erakartzea espero dugu. Iaz Hernanin egun osoan zehar 3.000 lagun hurbildu ziren. Aurten gutxienez hori espero dugu. Andoaindarrak eta

PAUSOKA EGUNA



Urriak 11, igandea Urnietan

- 10:00** Aureskua. Pausoka egunaren irekiera San Juan plazan.
- 10:30** Txanbolin eta Bosko Anitz taldeen kalejira, giza kateari laguntza emanez.
- 11:00** Tailerrak Bosko Anitz eta Buruntzantzan taldeen eskutik.
- 11:00-13:00** Jumping, tailerrak, photocall, eskulanak, murala, taloak, majia.
- 14:00** Paella jatea Egape ikastolako jolastoki estalian.
- 16:30** Ikuskizunaren ate irekiera.
- 17:00** Batukada eta funky taldea.
- 17:30** Egape dantza taldea.
- 18:00** Manos k rien.
- 18:30** Porrotx eta Ane pirata.
- 19:45** Jaiaren amaiera puxikak airera botaz.

Txartelak salgai

Ikuskizunetarako edota bazkari-rako txartelak 5 eta 4 eurotan, hurrenez hurren. Salgai Plaza Etxeberriko Eder liburudendan. Egunetan bertan ere salgai izango dira.

urnietarrak animatu nahi ditut. Ospakizun hau ez da soilik Pausoka osatzen dugun familien onurarako. Gure esperientziaren arabera, gure egoeran ez diren familiek horrelako ospakizunetan esperientzia bikaina eraman ohi dute etxera. Esperientzia hori bizitzeko, gure kolektiboa ezagutzeko gonbitea luzatu nahi nieke andoaindarrei eta urnietarrei. Ederki pasako dute.

Bi Udalen, laguntzaileen, dendarien eta enpresen laguntza ere eskertu beharra daukagu.

[URNIETA, 3. ORRIALDEA]

Bilera sorta Andoainen

Gobernu taldeak bilera sorta deitu du Andoaingo auzune ezberdinetan, aste honetan eta hurrengoan. Epe luzera indarrean jarri nahi dituzten egitasmoak eta neurriak aurkeztu nahi dituzte.

[ANDOAIN, 6. ORRIALDEA]

Urnietako jaien amaiera



Sagardoa edanez eta txekorra jaten eman zioten amaiera festari, Urnietan.

[URNIETA, 2. ORRIALDEA]

Andoain laburrean lehiaketa

400. urteurrenaren harira, euskarazko film laburren lehiaketa abian jarri du Andoaingo Udalak. Zehazki Andoain edota andoaindarrak ardatz dituzten film laburrak bildu nahi ditu. Bakarka edo taldeka aurkeztu ahal izango dira lanak, bi sailetan: 16-18 urte bitartekoak eta 18tik aurrerako profesionalak ez direnak. Lanak aurkezteko epea aste honetan ireki dute.

[ANDOAIN, 9. ORRIALDEA]

Xoxoka jaietan

Lehen txanpa igarota, azken txanpari helduko diote asteburu honetan.

[URNIETA, 4. ORRIALDEA]

ERROSARIOKO AMABIRJINAREN OSPAKIZUNA URNIETAN

Txekor jatea, sagardoa eta Egan herriko plazan

Euria eta haizea tarteko, eguraldia batere atsegina izan ez bazen ere, igande iluntzeko ospakizuna bere horretan burutu zen. Ohikoa den bezala txekor jatea, sagardo dastaketa eta Egan taldearen dan-

tzaldia izan ziren jaietako azken eguneko osagai nagusiak. Bi aste-burutan dozenaka ekitaldi antolatu dituzte Urnietan; aurtengo jaiak ere oparoak izan dira.



San Juan plazan sagardozale eta festazale ugari bildu zen.



Aurreko larunbat arratsaldean dantza saioa eskaini zuen Aurrera Gure Ametsa taldeak, Saroben. Euskal dantzak, asturiar folklorea eta errenazimenduko dantzak eskaini zituzten.



Txekor jatea, ohikoa Errosarioko amabirjinaren ospakizunean.



Kontsejupekoa sagardo dastaketarako gune bilakatzen da jaietan.



Igandean ere ertaroko giroko dantzariak aritu ziren plazan.

ANTZERKI ESTREINALDIA SAROBEN



Aurreko ostiral arratsaldean "Ongi etorri Pottoki" antzeziana aurkeztu zuten, harrera beroarekin.

EGAPEREN BIDEO KLIPA INTERNET SAREAN IKUSGAI



"Urnietta Hegapean" izenburu horrekin Vimeo atarian ikusgai dago mendeurrena gogoan duen bideoa.

HAURRENTZAT BEHAR BEREZIAK DITUZTEN GURASOEN ELKARTEA

Pausoka eguna Urnietan, igande honetan

Gizarte mailan alor askotan garapen handia ezagutzen ari garen garaioan, hutsuneak aipagai izan behar dute. Hasiara batean kasu bakan gutxi batzuk ziren, isolatuak, behar bereziak zituzten haurrena

eta euren familiena. Elkarren artean harremanetan jarri eta biltzen hasi ziren, Pausoka elkarte sortu arte. Denbora tarte txikian abia da bizian hazi da. Igandean II. Pausoka eguna ospatuko dute.

[LEHEN ORRIALDETIK DATOR]

Aurtengo Pausoka eguna Urnietan izango da, igande honetan. Zer nolako ekarpena egiten du Urnietak?

M.R. Egunean zehar Udal baliabideak erabiliko ditugu trafikoa bideratzeko edota ospakizuna burutzeko. Horrez gain, elkarrearen helburuen artean daude haur hauekiko sensibilizazioa, normalkuntza eta integrazioa lantzea. Aurten helburu horiei lotutako tailerrek bideratu ditugu, haur guztiek elkarrekin jolas dezaten. Material hori garatzeko, Urnietako Udalak laguntza eman digu. Elkarlanerako hitzarmena sinatuta dugu Pausokak eta Udalak.

Goruntz doan ekimena al da zue-na?

M.R. Aste batetik bestera kide berriei balorazioak egiten dizkiegu. Une honetan 70 familia gaude, baina datorren astean gehiago izango gara. Hazten ari da, eta egoitza pixkanaka betetzen doa. Egoitza hazteko eta profesional sarea handitze-ko borrokan jarraitu behar dugu.

Haur batzuren egoera behintzat aldaraztea lortzen ari zarete.

M.R. Halaxe da, bai. Pausokak oraindik bere burua ezagutarazi behar du, eta gure premia duten familiak atea jo besterik ez dute. Alde horretatik panorama hobetzen ari da. Orain elkarrean sartzan ari diren familiak hiru urteko esperientziaz baliatzen ari dira. Ibilbide hori egina dago. Lehen ez genuen ezer, eta beharren arabera haziz joan gara.

Hutsune handi bat betetzera zatozela ondoriozta genezake, orduan?

M.R. Zegoen hutsunea ikaragarria da. Hutsuneak bere horretan dirau. Azken batean gura-



Maiteder Requejo hernaniarra, Aimar Pablos haurraren ama da.

“Aste batetik bestera kide berriei balorazioak egiten dizkiegu. Une honetan 70 familia gaude, baina datorren astean gehiago izango gara. Eta egoitza pixkanaka betetzen doa”

sook kudeatzen dugun gune bat da, baina guri gertaturikoa edonori gerta dakioke. Azkoititik, Adunatik,... familia asko esfortzu handia egiten ari dira Hernaniko egoitzara gerturatzen.

Arreta goiztiarra deitzen zaiona, 0-6 urte bitarteko hau-

rrena, administrazioetatik landuagoa egon beharko luke gure ustez.

Aldundia, Osakidetza..., zein bide urra daiteke instituzio horietatik?

M.R. Harremana hasieratik eduki dugu, eta horrela izaten jarraituko dugu. Epe erdira eskuartean dugun egitasmoa potoloa da. Hernanin Udalak utzitako solairu bat dugu, baina guk berez eraikin oso bat behar dugu profesional gehiago sartzeko eta terapia gehiago eskaintzeko. Hidroterapia eskaini ezinik gaude. Igerileku berezia behar dugu, ezaugarri

bereziekin. Funtzio anitzeko gunea izango da, zerbitzu ezberdinak elkar korodinatuta arituko direnak. Egitasmoa prest dugu. Horixe litzateke gure hurrengo helburua.

Kasu bat azalduko dizut. Garuneko paralisia duen haur bat izan eta jaio ostean, Osakidetza familiaren esku uzten du. Eta une horretatik aurrera zer egin behar dute? Nola lagundu haur horri? Nora jo? Horrek guztiak lotuta egon beharko luke.

Erresidentzian jaioberrien gunea berritzeko inbertsio handia egin du, eta hortik aterako dira jarraipen berezia beharko duten haurrak. Eta zer dago? Umea jaiotzeko azpiegitura bikaina dago, primeran. Baina gero zer? Zer egin ume horiekin? Nola lagundu diezaiekegu? Mugitzen hasi behar dugu Aldundiarekin eta Osakidetzarekin.

Aldundian entzun behar izaten dugu errehabilitazioa zer bait soziala al den. Neronek erantzuten diet, "errehabilitazioa ez dakit zer bait soziala den, baina haur bati errehabilitaziorik ez eskaintzea arazo sozial bilakatuko da. Dependentsortzen delako, horrek suposatzen duen gastu handiarekin. Gerora begira gastu sozial handia da Aldundiarentzat.

Beraz, zergatik ez jarri baliabideak hasiera batetik?

Adibide argia Markel Urnietako haurraren kasua da. Garapen handia izaten ari da.

M.R. Halaxe da, garapen ikaragarria izaten ari da. Hobekuntzak pozgarriak dira eta beste zenbait kasutan terapiarekin degenerezioa eteten ari gara. Alegia, haurrak okerrera ez egitea.

Pausokara datozen guztiek ez dute oinez bukatuko, baina askoren bizi kalitatea nabarmen hobetzen ari gara.

Kasu bat azalduko dizut. Garuneko paralisia duen haur bat izan eta jaio ostean, Osakidetza familiaren esku uzten du. Eta une horretatik aurrera zer egin behar dute? Nola lagundu haur horri? Nora jo? Guzti hori lotuta egon beharko litzateke

Gizarte mailan asko egiteko al dugu oraindik?

M.R. Uff, asko. Nire semeak urrian zazpi urte egin behar ditu. Inklusibitatea aipatzen da, baina hezkuntzan baliabide falta dugu. Nik aurten haurra eskolara 09:00etatik 13:00etara eraman dezaket bakarrik. Gero jaso egin behar dut. Hori ez da normalkuntzaren adibide bat.

Eta aisialdia aipatzen hasita, ez dago ezer. Pasieran ibiltzea gora eta behera, ez dugu beste aukerarik. Arazorik gabeko haurra baldin baduzu futbole- ra, igerilekura, musikara daramazuz. Arazorik duen haurra izanez gero, ez dago aukerarik. Lasarteko Udalarekin harremanetan gabilta ea ludoteka egokitu bat irekitzen dugun.

Une honetan Buruntzaldeko 30 haur ditugu aisialdirako aukerarik ez dutenak.

Elkartea bera gurasoentzat ere zenbaterainokoa izaten ari da garrantzitsua?

M.R. Haurrak hobeto baldin badaude, gurasoak askoz hobeto egoten dira. Erlazio zuzena dago. Zure egoera berezian dauden familia gehiago ezagutzeak lasaitasuna eskaintzen dizu, urratzeko bide bat badagoela erakusten dizu, ez zaudela bakarrik ikusarazteko balio izaten du. Lorpenak izaten ari gara, gainera.

URRIAK 11. PAUSOKA EGUNA.

ASTELEHENEAN ETA ASTEARTEAN LEHEN HITZORDUAK, AZKEN TXANPA LARUNBATEAN ETA IGANDEAN

Egun ederra, Xoxokako jai egunetako lehena

Ailegatu zen Goiburuko auzotar askok hainbeste espero zuten eguna. Baina, ez beraiek bakarrik, Urnietako beste auzoetatik eta kale-tik ere bai baitira, urtero, hutsik egin gabe bertara hurbiltzen dire-

nak. Baserri giro tradizionalaren usain gozoa ez du galdu Xoxokako jai egitarauak. Herri kirolak, bertso saioa, trikitilariak... egun eder-rra izan zen.

Baserriak erdi hutsik, edo hainbat kasutan, soilik bizileku diren XXI. mende honetan, bertako jai batzordea osatzen duten gazteak ez dute sokarik eten. Gazte horiek auzolanearan hain gogotsu ikustea zoragarria da.

HERRI KIROLAK

Ohi bezala, Xoxokako plazan, herri kirol emanaldiarekin hasi ziren aurtengo jaiak. Bertan, 200en bat ikusleren aurrean, Telleria anaiak (Urtzi eta Beñat) eta Mugertza anaiak (Ugaitz eta Aratz). Aizkoran, harrijasotzen, trontzan eta korrika aritu ziren, ikuskizun bizia eta gustagarria osatuz. Oso txalotua izan zen emanaldia.

BERTSOLARIAK ADARRAN, BESABIN ETA TAULA GAINEAN

Lan berezia izaten dute bertsolariak Xoxokako jaietako lehenengo egunean. Lehenik, plazan kantatu zuten, herri kirolen ikuskizunaren ondoren, ondoren, Adarra jatetxeko herri bazkarian. Handik, Besabi jatetxera hurbildu ziren, bertan bildutako belarriak gozatze-
ra, eta bueltan Xoxokan, jada izarpean, kantatu zituzten azken aleak.

Astelehenero saioan, lehen aldiz etorritako Andoni Egaña, eta bertan ohikoa den Jexux Mari Irazu larrauldarra arduratu ziren bertsozaleen belarriak gozatzeaz. Badira 20 urte inguru, Irazu bertara hurbiltzen dela, lehenik, Joxe Agirre-ekin, eta ondoren, Amets Arzallus bertso-kide zuela. Berak duen auzoaren eta auzotarren ezagutza medio, bertako giroari erabat txertatutako saioak izan ziren asteleheneroak.

Zendu berria den Iñaki Aranzadi apaiza Xoxokan izaten zen urtero jaien hasierako astelehenean, eta bertsolariak gogoan izan zuten plazako lehen saioan.



Jai batzordeko kideak Andoni Egaña eta Jexux Mari Irazu bertsolariekin batera.

IRAZU

Pixka batean geldituko da haren lanaren itzala, eta Xoxokan urtero-urtero bertako balitz bezala, txoko batean zutik jarrita, erne egoten zan hala, seguro gaur ere dagon tokian aditzen egongo dala.

EGAÑA

Badakit Iñaki apaizak orain alde egin duela zuei bezala neri utziz barrunberik minduena apaiz askoren marka genuen pekatu aginduena baina Iñaki genduen apaiz bat goxo hartzen gintuena.

Aiurri ere ahotan hartu zuten herri bazkarian:

IRAZU

Larrauldik hasi eta Urnietara herri askotan barrena interesgarri bezain bertako bere baitan dakarrena orain bertotan egin nahian merezitako omena famatzea da ederra baino irakurtzea onena

EGAÑA

Eta lehengora itzultzea ere ez da izango kaltian hainbat erdaldun hitz ikusita jangelako paretian lehen aipatu det euskara dago han komuneko atian Aiurri ere letu liteke kumunera joatian.

IRAZU

Hara Andoni izan ziteken okurrentzia polita komun garaian papera baita premiazko erreminta baina Aiurrik zorionean ez dauka halako kinka nahiago izaten det irakurtzea etxeko sofán jarrita.

EGAÑA

Halaxe da bai eta horixe norbaitek esan du hara hainbat urteko eskarmentua denok baukagu jada gure ahotsa ezin liteke beste inoren esku laga baina ohotsak zer balio du nork entzunikan ez bada.

HERRI BAZKARIA

Xoxokako jaiei zegokien mo-

Astelehenero erromeriaren azken bertsoan Jexux Mari Irazuk nabarmendu zuen sentsazio berarekin etxeratu ziren bertaratutakoak, "Egun eder bat izan da"

duan, herri bazkaria ere klasikoa izan zen eta oparoa izan zen, hau izan zen jangela bete zuten 60 pertsonen bazkaldu-takoa: entsalada, onddoen errebueltoa, erreboiloa, saihsakia eta gazta tarta. Jangelara sartzeko aukerarik izan ez zuten bertsozaleek, bazkalosteko bertso saioa zuzenean jarraitzeko aukera izan zuten tabernan jarritako pantaila erraldoian.

TRIKITILARIAK

Agurtzane Elustondo eta Jon Elustondo legazpiar anai-arreba ezagunak arduratu ziren egun osoan zehar, giroa alaitzeaz, eta adin guztietako jendea dantzan jartzeaz. Astelehenero erromeriaren azken ber-

JAIK XOXOKAN



Urriak 10, larunbata

- 11:00** Hamaiketako Xoxokako eskolan, Haritz Mujika eta Adur Gorostidi bertsolari-ekin.
- 11:00** Puzgarriak haurrentzat.
- 12:30** Sega apustua: Julen Gabirondo eta Alaitz Imaz, Suharri Irazustabarrena eta Jon Otegiren aurka. Ondoren gaztetxoan erakustaldia segan.
- 15:00** Mus txapelketa eskolan.
- 16:00** Puzgarriak haurrentzat.
- 17:00** Gorriti eta bere animaliak. Jarraian txokolate jatea.
- 19:00** Xoxokako X. toka lehiaketa.
- 20:30** Betizu jatea Xoxokako plazan.
- 00:30** Gaupasa: Laiotz.
- 01:00** DJ Aminesia eskolan, goizalderarte.

Urriak 11, igandea

- 12:30** Meza nagusia. Ondoren Egaperen dantza saioa.
- 17:00** Herri kirol lehiaketa auzoko ezkonduak ezkongabeen aurka.
- 18:00** Sagardo probaketa: Oianume, Setien, Eula, Elutxeta, Otsua-enea, Elorrabi.
- 20:30** Festen amaiera.

tsoan Jexux Mari Irazuk nabarmendu zuen sentsazio berarekin etxeratu ziren bertaratutakoak, "Egun eder bat izan da".

ASTELEHENEAN ETA ASTEARTEAN LEHEN HITZORDUAK, AZKEN TXANPA LARUNBATEAN ETA IGANDEAN

Herri kirol lehia eta auzo antzerkia Xoxokako jaietan

Asteartean idi-probak egin zituzten eta zahagi-ardoaren ondoren auzotarren algarak piztu zituen antzezpena egin zuten gazteek. Arratsaldeko idien arteko desafioan Barriola asteasuarraren idiak

Joxe Elola andoaindarraren idien aurretik nagusitu ziren. Aurten goan sexuarekin lotutako sekuentzia barregarriak eta pikanteak antzeztu zituzten Xoxokako gazteek, gau partean.



Umorea eta ziria sartzea nagusi izan zen Xoxokako antzezpenean.



Julen Gabirondo segalari txapeldunak ere antzeziarean parte hartu zuen.



Joxe Barriola eta Aitor Matxain, idi pare irabazlearekin.



Imanol Pagola, Luis Mari Matxain eta Joxe Elola.

Joxe Elola andoaindarraren (Egues baserria) eta Joxe Barriola asteasuarraren idiak jarri zituzten lehian, 1.400 kiloko harriarekin nork plaza gehiago egin, 20 minutuko tartean. Ibarrolarenak 42 egin zituzten, 33 Elolarenak. Itzain bezala, idi irabazleekin Barriola bera eta Aitor Matxain errenteriarra aritu ziren; galtzaileekin, berriz, Luis Mari Matxain errenteriarra eta Imanol Pagola hernaniarra.

GAU SORPRESA

Urtero legez, antzerki parodia burutu zuten Goiburu auzoko gazteek astearte gauean. Emakumezkoak eta gizonezkoak ariketa ezberdinak (estilisten esku jartzea, masajeak ematea, dantzan aritzea...) egitera jarrita bikoteak osatzea xede duen telebistako programa horietako baten aitzakia hartu zuten horretarako, eta umorea, grazia eta bat-batekotasuna gainezka izan zen Xoxokako plazan. Sexuarekin lotutako sekuentzia

barregarriak eta pikanteak antzeztu zituzten gauean zehar, eta algarak eragin zituzten ikusleengan, ordubere iraun zuen ikuskizunean. Euriari aurre egitea merezi zuela pentsatuz itzuli ziren etxera ikusleak, zalan-tzarik gabe.

Benetan badute meritua auzoko gazteek, urtero-urtero ohitura horri eutsiz. Antzerkian batere trebatu gabeak izan arren, lotsak zokoratu, eta ederki animatzen dira jendaurrean antzeztera.



Auzotar eta inguruko jende ugari bildu zen asteartean, arratsalde zein gaueko ekitaldietan.

Zinema bonoak eskuratzeko aukera

Udalak bonoen bidez zinemaz gozatzeko aukera merkeagoa eskainiko du, beste urte batez. Bi bono mota ezberdin dira: 5 saiokoa, 18 eurotan eta 10 saiokoa, 30 eurotan. Haur nahiz helduen filmak ikusteko baliagarriak dira, eta dagoeneko eskuragarri daude Sarobeko harreara gunean, jendaurreko arreta ordutegian.

Bonoa 2016ko ekainaren 1era arte baliagarria izango da. Sarrera arruntaren prezioa 4 eurokoa da.



Urriaren 18an zinema saioa eskainiko dute, 16:00tan eta 18:30tan.

Okerrak zuzen

Irailaren 24an kaleratutako Aiurrin, Urnietako udalbatzaren kronikan okerreko informazioa argitaratu zen. Plenoaren kronikan tokiko jai eguna eta eraikinen garbiketa aho batez onartu zela adierazi zen. Azken hori, ordea, okerra da.

EH Bilduk argitu nahi duenez, "aurkako bozka eman genuen gai horretan. Zera adierazi genuen: Orain arte

lanpostu hau betetzen zuen langilea, udal langilea zen eta horrela jarraitzea eskatzen dugu. Lanpostuaren udal izaera mantentzea beharrezkotzat jotzen dugu, lanpostuaren externalizazio hutsa delako. Externalizazioak lan baldintzak okertzea ekartzen du, interes pribatuaren alde eginenez. Beraz, aipatu bezala, EH Bilduk honen aurkako botoa eman genuen".

Baketik erakundeak eta Udalak mahai-ingurua antolatu dute

Hedabideen eragina bake prozesuan aztergai

Datorren ostegunean, urriak 15, Baketik erakundeak eta Udalak mahai-ingurua antolatu dute Lekaion. Gorka Landaburu kazetaria, Martxelo Otamendi Berriako zuzendaria eta Noticias taldeko Pablo Muñoz izango dira solaskideak. Bake prozesuan hedabideek duten eragina aztergai izango dute. Hiru solaskideak martxoan hizlari aritu ziren El Pais taldeko Luis R. Aizpeolearekin batera. Andoaingo hartan hainbat hausnarketa interesgarri entzun ahal zaizkizuten.

Gorka Landaburuk, esaterako, etorkizunari ekiteko atzera begiratu beharra dagoela azpimarratu zuen: "Denbora berriak bizi ditugu Euskadin, eta askok hausnarketa egin behar lukete. 40 urteko terrorismoa bizitu dugu, eta baita poliziaren indarkeria. Kontua ez da zauriak urratzen ibiltzea, baina bizitu dugun hori guztia gogoratu egin behar da. Herri hone-



Iluntzeko 19:00etan hasiko da mahai-ingurua, Lekaion. Irudian, martxoan Andoainen egin zuten solasaldia: Iartza, Otamendi, Muñoz, Azpieolea eta Landaburu.

tan denok gara elkarren eza-gun, orain arte askok elkarri ez diogu diosalik ere egin, eta elkarbizitzan aurrera egin nahi badugu, garrantzitsutzat jotzen ditut keinuak, horiek txikiak eta pertsonalak izan arren".

Martxelo Otamendik barrura begiratzeko ariketa egiteko proposamena luzatu zuen, "mediok normalean teniseko epailearen jarrera hartzeko ohitura daukagu. Mugitzen

den guztiari nota jartzen diogu, adjektiboekin, editorialekin... Bada garaia, barrura begirako ariketa egin dezagun. Gure herriko gatazkan nola jokatu dugun, zer egin dugun biktimen minaren aurrean, norengana hurbildu garen eta norengana ez... Ondo legoke hemengo zuzendariak eta zuzendari ohiak noizbait bildu, eta azterketa sakon bat egitera jarriko bagina".

Urnietak Urriak 11

PAUSOKA EGUNA 2015!

Kolaboratzaileak
SALTO
Oltra Social
Herriko Udala

Urriak 11, igandea URNIETA

- 10:00 Aurrekua. Pausoka egunaren irekiera San Juan plazan.
- 10:30 Txanbolin eta Bosko Anitz taldeen kalejira, giza kateari laguntza emanez.
- 11:00 Tailerrak Bosko Anitz eta Buruntzantzan taldeen eskutik.
- 11:00-13:00 Jumping, tailerrak, photocall, eskulanak, murala, taloak, majia.
- 14:00 Paella jatea Egape ikastolako jolastoki estalian.
- 16:30 Ikuskizunaren ate irekiera.
- 17:00 Batukada eta funky taldea.
- 17:30 Egape dantza taldea.
- 18:00 Manos k rien.
- 18:30 Porrotx eta Ane pirata.
- 19:45 Jaiaren amaiera puxikak airera botaz.

PARTE HARTZE HARIAK LOTUZ

Udalaren martxa berriaren lehen notak

Agintaldi berrian Ana Carrere alkateak eta gobernu taldeko kideek auzoz auzoko bilerei berrekin diete, Udalaren egitasmoen berri eman eta herritarren ekarpenak jaso asmoz. Asteartean egin zuten

lehen bilera eta bertara hogeita hamar herritar hurbildu ziren. Herrikideen aipamen asko ur hoditeriari buruzkoak izan ziren. Kexak azaltzeko eta proposamenak egiteko aukera ere izan zen.

Ana Carrere alkateak aurreko agintalditik joera bati eutsi nahi dio: Udalaren jarduna, tarreka, auzoz auzoko bileretan azaltzea. Aste honetan eta hurrengoan sei bilera deitu dituzte, nahi duen herritar orok Udalaren proposamenak entzun dituzan eta, nahi izate aldera, egoki ikusten duen galdera edo kexa ager dezan. Lehen bilerak ordu eta erdiko iraupena izan zuen eta horretan ur hoditeriaren egoera eta ur zerbitzuaren etorkizuna hizpide nagusi izan ziren. Irtenbidea aurkitzea Udal ordezkariak duten alderdien borondatea da, baina gaur gaurkoz ez da lortu. Herritarrek gai horretan hasi ziren Udal ordezkariak adierazpenak eteten, eta galderak egiten. Oraingoz bi irtenbide lantzen ari direla aurreratu zuen **Ainara Rodriguezek**. Ur hoditeria zaharkitua aldatu eta ur zikinen lotuneak berritzeko maila eskatzeko moduan izan daitezkeela aurreratu zuen, banketxeen aldetik aukerak badituztela adieraziz. Beste aukera bat Udal gobernu taldeak azken urteotan defenditu duena da. Alegia, Gipuzkoako Ur Kontsortzioan sartzea eta erakunde publiko horrek hamar urtez ur zerbitzua kudeatzea. Udalak ez luke inbertsiorik egin behar izango, eta gainera diru kopuru jakin bat jasoko luke kontsortzioaren aldetik. Rodriguezek autokritika egin zuen EH Bilduren izene-



Ana Carrerek, Ainara Rodriguezek eta Agustin Alberrok azalpenak eskaini zituzten, asteartean Basteron deitu zuten lehen bileran.

an, gai hau aurreko agintaldian bideratzen asmatu ez zutelako. Era berean, gainerako alderdiek ere autokritika hori egitea espero zuela gaineratu zuen.

Auzi honi irtenbidea bilatuko diotela uste dute, urtea amaitu baino lehen.

Urarena erronka nagusia da, baina ez bakarra. Gobernu taldeak eskualdeko garapen agentziari bultzada eman nahi diola adierazi zuen. Enplegua sustatu, enpresak lagundu, merkataritza sustatu, turismoa indartu... alor horietan Jaurlaritzak eta beste zenbait erakundek eskualdekako

Karrikan, Sorabillan eta udaletxean hiru bilera gehiago egingo dituzte datorren astean

egitasmoak laguntzen dituzte. Buruntaldean hutsune hori dago, eta helburua garapen agentzia martxan jartzea izango da. Irtenbidea eskualdeko alderdien arteko negoziatioetatik iritsiko da.

Hirugarren erronka udaletxearen egoera ekonomiko zaila bideratzea izango da, igaro dituen estuasunetatik aldentzeko.

Erronkez gain, ekitaldiaren hasieran oinarri orokorrak hizpide izan zituzten. Besteak beste, Ana Carrere alkateak justizia soziala, bizikidetzaren erabakitzeko eskubidea, euskararen normalakuntza eta Udal jardunaren garrantasuna aipagai izan zituen.

50 neurriei dagokionez, neurri horien betetze maila gizarteratzeko kronograma egitea eskatu zuen herritar batek. Alkateordea bat etorri zen proposamenarekin, betetze maila neurtzeko jarraipen batzordea osatzea aztertzen dabilzala adieraztearekin batera.

PARTE HARTZEA

Bileretan bizilagunek gertuko arazo berri emateko aukera baliatzen dute. Basteron egin zen lehen bileran hainbat proposamen eta kexa agertu ziren.

Eskola kalea. Bizilagun batek edukiontzien kokapenarekiko kexa agertu zuen. Kutzaren pareko semaforoaren ondoan jartzea arriskutsua izateaz gain, bizilagun askorentzat errepidearen bestaldean jartzea hobeto legokeela adierazi zuen. Alkateak edukiontzi horiek oinezkoen arriskua ekiditeko mugitu egingo dituztela erantzun zion, ondoko bizpahiru aparkaleku kenduta. Zabor biltzaileen ibilbidean kokapen onena horixe dela ere adierazi zion.

Doktor Huitzi eta Agustin Leitzakaleak. Beste bizilagun batek espaloi eta parkeak egoera kasikarrean zeudela salatu zuen. Adinekoen irisgarritasuna hobetzeko neurriak hartzea eskatu zuen.

Zumea plaza. Tolosara bidean dagoen bus geltokia tokiz aldatuko dutela jakin zen bilera horretan, bizilagun batek desadostasuna agertu zuelako. 50 metro aurrera mugituko dute, egungo espazio hori zamalanetarako uzteko. Alkateak horko zebrabidetik igarotzen den herritarren segurtasunagatik egingo dutela adierazi zion.



BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA
Aiurri

Albistegia webgunean:

- Argazkiak, bideoak eta kronikak ikusgai
- Sanmielak, Xoxokako jaiak
- www.aiurri.com webgunean
- **Aiurri, eskualdeko nortasun hitzak**

Mazedonia tailerra Gazte Lokalean



Gazteak aurreko ostiralean, mazedonia tailerlean.

Udazkenarekin batera, tailer berriak jarri dituzte abian Gazte Lokaleko kideek. Urriaren lehen egunetan, mazedonia tailerra egin zuten. Hala, merienda goxoa izan zuten bertara hurbildutako gazteek. Bufanda tailerra aurrerago egingo dute, negu giroa hasten denean.

“GOMENDATZEN DIZUT...” LEHIAKETA

Bidaia eta irteeretako informazioa trukatzeko asmoz, aurreko lehiaketa antolatu dute Andoaingo gazteentzat. Gomendio bat idaztean datza: ostatu, jabetxe, herri, museo, paisaia ikusgarri, ekintza interesgarri eta abarren ingurukoa izan daiteke. Helburua bidaietako edozein datu baliagarri ematea da.

Urriaren 31n amaituko da parte hartzeko epea. Irabaz-

“Gomendatzen dizut lehiaketan parte hartzeko epea hilaren amaieran amaituko da”

lea zozketa bidez aukeratu-ko da eta Andoaingo dendetan erabiltzeko 60 euroko Gomendio guztiekin erakusketan egingo dute Gazte Lokalean.

Oinarriak:

- Andoain bizi edo ikasten duten 12-18 urte bitarteko gazteek parte har dezakete.
- Gehienez 3 gomendio aurreko daitezke pertsonako.
- Gomendio bat egin behar da eta bi arrazoi eman behar dira zergatik gomendatzen den laburki azalduz.
- Argazki batekin lagunduta joan beharko luke gomendioak.

Andoain hizpide izan zuten Mintzodromoan



Mintzodromoa antolatu zuten aurreko larunbatean Juanita Alkain plazan.

Aurreko larunbatean Juanita Alkain plazan jarritako hainbat mahai mintzalagunez bete zen. Andoain hizpide izan zuten euren arteko solasaldietan, AEKko Kris Bernalek adierazi bezala: “Proposamena gauzatu ze-

nean, mintzalagunen artean zein gai aukeratu eztabaidan ibili ginen. Argi genuen gaiek lotura izan behar zutela Andoainekin”. Herri giroaz edota euskararen erabilerari buruz hizketan jardun zuten.

Zumba ikastaroa Leire Rekalde andoaindarraren eskutik

Zumba, yoga eta gehiago Zuenaren ikastaroetan

Dantzarako eta kirolerako prest jarri dira Zuenaren elkartek antolatutako ikastaroetako partaideak, aste honetan hasi baitira, besteak beste, Zumba eta Yoga ikastaroak.

Lehenengo urteko arrakastari jarraituz, Zumba estiloko dantzak irakatsiko ditu Leire Rekalde andoaindarrak. Dantza eta kirola erritmo handiko musikarekin uztartuko ditu, funky, hip-hop eta pausu latinoekin dantzatzeko.

Leirek adierazi duenez, normalean emakume helduek ematen dute izena Zuenaren antolatutako ikastaroetan, gazteek kiroldegira jotzeko ohitura dutelako. Taldean helduak daudenetan, pausoak egokitu egiten dituela azaldu du: “Zumbaren kasuan, inpaktu handiko pausoak eta saltoak ekiditen saiatzen naiz, belau- nek sufri ez dezaten”.

Hala ere, atek denontzat irekita daudela eta gazteak ere



Zumba ikastaroko ikasleak.

gerturatzeko animatu ditu. Entseguak hasi diren arren, ikastarora animatu nahi izan ditu herritarrek. Astelehenetan eta asteazkenetan 10:30etik 11:30era arituko dira Ambrosio Olabiden. Jende gehiagok izena emango balu, beste talde bat osatuko lukete 09:30etik 10:30era.

AUKERA ZABALA

Ikasturtean zehar egiteko ikastaro gehiago antolatu ditu Zue-

nak: pintura, pilates, yoga, tai-chi, musika, sendabelarrak, sebillanak, aretoko dantzak, arropa konpontzeko eta josten ikasteko ikastaroak... Guztien artean yoga azpimarratu du Leirek, bera arituko baita irakasle lanetan. Astelehen eta asteazkenetan bi saio emango ditu: bata 17:00etatik 18:30era eta bestea 18:30etik 20:00etara, Zuenaren lokalean.

Izena emateko deitu telefono honetara: 606 929 697.

Garbiketa eta dragatze lanak bi ibaiak batzen diren tokian

Garbiketa lanak

Espigoian ondoan, Leitzaran eta Oria ibaiak elkartzen diren gunean garbiketa lanak egiten ari dira. Ibaien ertzak garbitu eta onbideratzeko lanak egin ondoren, dragatzeari ekingo diote. Udalak ohar bidez adierazi duenez, “dragatzearen beharra Andoaingo Udalaren eta herritarren aspaldiko eskaera da”. Urigoeren ondorioz kalteak saihestea premiazkoa da.



Aste honetan hondeamakinak lanean aritu dira.

ETXEGABETZEEN AURKAKO AGERRALDIA



Stop Desahucios elkartek deituta, “Iruzurrak jarraitzen du” lelopean elkarretaratea deitu zuten aurreko larunbat goizean.

ANDOAINARRAK 400 EKIMENA

Film laburren lehiaketa, Andoain ardatz hartuta

Andoain eta andoainarrak protagonista izango diren lehiaketa antolatu du ESCIVI Bideo eta Zinema Eskolak, Udaleko Euskara Zerbitzuarekin elkarlanean. Andoainen 400. urteurrenari begira, gazteek

euskarazko ikus-entzunezkoen bidez Andoain islatzea lortu nahi dute lehiaketaren bidez. Azaroaren 16an izango da lanak aurkezteko azken eguna. Sari banaketa, berriz, abenduaren 3an egingo da.



Edozein motatako ikus-entzunezkoak egin daitezke, genero guztiak onartuko baitituzte: bideoklipak, dokumentalak, erreportajeak, bideo artistikoak... Dena den, guztiek Andoain herriarekin lotura izan beharko dute; herriko kaleak erakutsiz, andoaindarren ahotsak bilduz edota 400. urtemuga kontatuko duen bideo historiko bat eginez, esate baterako.

Profesionala ez den eta Andoainen bizi, ikasi edo lan egiten dutenek izango dute parte hartzeko aukera. Bakarka edo taldeka aurkeztu ahal izango dituzte lanak, bi sailetan. Batek, 16-17 urte bitarteko gazteen saila dago, Batxilergoko ikasleei zuzenduta; eta bestetik, 18 urtetik gorakoena.

Euskarazko ikus-entzunezkoek bultzada emateaz gain, gazteak aktibatzekeo balioko duela uste du Ainhoa Aiertza



Profesionala ez den eta Andoainen bizi, ikasi edo lan egiten dutenek izango dute parte hartzeko aukera.

irakasle eta antolatzaileak: "Andoain mailako lehiaketa denez, gazteek gertuago ikusten dute saria lortzeko aukera eta horrek parte hartzera bultzatzen ditu. Gainera, ekintza interesgarria da, gaur egun film laburrak eta teknologia berriak bogan daudelako nerabeen artean". Honela, mugikorrekin grabatzea ere posible dela gaineratu du.

OINARRIAK

Lanak euskaraz egin beharko

dira eta, gehienez, bost minutuko iraupena izango dute. 400. urteurrena ikusarazteko, film labur guztietan 400. urteurreneko txapa agertu beharko da. "Nahikoa izango da protagonista bati txapa jartzea", adierazi du Ainhoa.

Lanak berriak izan beharko dira, hau da, beste inon argitaratu gabeak. Horrez gain, film laburrak ahalik eta anonimoen egitea eskatu dute. Horretarako, egilearen datuak edota egile bera ez agertzea komeni da.

Gehienez, bost minutuko iraupena izango dute. Film labur guztietan 400. urteurreneko txapa agertu beharko da

Partaide bakoitzak gehienez bi lan aurkeztu ditzake, bakarka zein taldeka bada ere.

Jakinarazi dutenez, antolatzaileek ez dituzte bere egiten aurkeztu diren lanetan egiten diren adierazpenak, erabilitako irudiak edota isuritako iritziak. Beraz, ez dute horien gaineko inolako erantzukizunik. Era berean, antolatzaileek lehiaketatik at utziko dituzte hirugarren pertsonen irudiarri, ohoreari eta osotasunari kalteak sor diezazkieten lanak.

NON ETA NOLA AURKEZTU

Lanak udaletxeko Ataria zerbitzuan aurkeztu beharko dira, azaroaren 16a baino lehen; eta, lanekin batera, gutunazal itxi bat utzi beharko dute. Bertan, egilearen informazioa gorde beharko dute: egilearen edo, talde baten kasuan, egile guztien izen-deiturak, helbideak, eta telefonoak. Gutunazalaren kanpoko aldean, berriz, lanaren izenburua eta egilearen jaiote-

guna zehaztu beharko dira, epaimahaiak lehiatuko den saila jakin dezan.

Bestalde, lanak aurkezteko artxibo motak honakoak izan daitezke: mov, mpeg, flv eta wmv. Nahi den bereizmena izan dezakete lanek, baina aukeran, nahiagoko da 1280 x 720 p (HD Ready) edo 1920 x 1080p (Full HD) bada.

SARI BANAKETA ABENDUAREN 3AN

Sari Banaketa ekitaldia abenduaren 3an, Bastero Kulturguneko ekitaldi aretoan izango da, arratsaldeko 19:30ean. Bertan, lan onenak proiektatzeaz gain, epaimahaiaren erabakia jakingo da. Epaimahaia Koldo Almandoz, Asier Altuna eta Jon Verdejo ESCIVIKO irakasleak osatuko dute.

Ainhoa azaldu duenez, ordua arte ez da irabazleen berri emango; horregatik, horrek ere indarra emango dio ekitaldiari. Gainera, Koldo Almandoz eta Asier Altuna gerturatuko dira ziurrenik, eta beraiekin solasaldia egiteko aprobetxatuko dute.

16-17 urte bitarteko atalean, lehen saria irabazten duenari 150 euro eta ELKAR argitaletxeak eskainitako materiala emango dizkiote. Bigarren geratzen denari, ordea, 75 euro eta ELKAR argitaletxeak eskainitako materiala. Bestalde, 18 urtetik gorako atalean, lehen saria 300 euro eta 400. urteurreneko materiala izango dira. Bigarrena, aldiz, 150 euro eta 400. urteurreneko materiala. Horrez gain, parte hartzaile guztien artean Bikoitz eta Ormendi dendetako materiala zozketatuko da.

INFORMAZIO GEHIAGO:

andoainarrak400.eus
andoainarraeuskaraz.eus
Euskara Zerbitzuan
943 300 831
euskarazerbitzua@andoain.eus

KILOMETROAK 2015 USURBIL



Aita Larramendi ikastolako kide hauek erronkan parte hartu zuten.



Txistulariak Udaregi ikastola inguruan, tartean Andoaingoak zeuden.



KIROL ALBISTEAK

Eskubaloia, abiatu da denboraldi berria

GIPUZKOAKO 1. MAILA

1. jardunaldia. Senior maila:

Urnieta 27-11 Katilu

Urola 35-30 Leizaran

2. jardunaldia:

Pulpo-Urnieta

Leizaran-Donibane

JUBENILAK, NESKAK

1. jardunaldia:

Zuri Zuri 16-22 Urnieta

Leizaran 12-29 Egia

2. jardunaldia:

Urnieta-Zarautz

Ereintza-Leizaran

Ikusmin handia piztu zuen Alex Txikonen hitzaldiak



Alex Txikon gaur egun Euskal Herrian dagoen mendizale ezagunetarikoa da, eta zale-tuen artean ikusmina sortzen du. Ikustea besterik ez dago aurreko larunbatean Lekaio-

ra hurbildu zen jende kopurua. Dozenaka pertsona bertaratu zen, aretoa betetzera. "Bizi-penak", horiexek hizpide hartuta hitzaldia eskaini zuen urriaren 3an.

Denboraldi berria hogeitertetik gorako igerilarientzat

Buruntzaldea IKT taldeak aste honetan hasiera eman dio "Masterrak" izeneko denboraldiari. Oraindik ere izena emateko epea zabalik dago. Elkartetik adierazi dutenez, "20 urtetik gorako igerilari, igerilari ohi, triatloilari edo igeriketarekin zerikusia duen edozein jarduerako kirolariei zuzendua dago. Atal honetan entrenamendua da helburu nagusia eta horretarako beharrezkoak diren alderdi tekniko, taktiko eta fisikoak landu eta garatzen dira. Hala ere, lehiatzea ez da de-

rrigorrezkoa. Entrenamendu talde bat izanik, helburua igerilekuko txapelketetarako, ur irekietako txapelketetarako zein triatloietarako igeriketa ahalmena landu eta hobetzea dira, beti ere igeriketak duen alderdi soziala eta osasun onura albo batera utzi gabe".

Prestaketa saioak astelehen, asteazkena eta ostiralarekin izaten dira, goizez edo arratsaldean.

Informazioa:
buruntzaldeaikt@gmail.com
696 506 632

Denboraldiko azken irteera, lagun artean



Andoingo txirrindulari eskolako kideak eta lagunak Otietan, aurreko larunbatean egin zuten irteeran.

Udazkenaren iritsierarekin txirrindulariek denboraldiari amaiera ematen diote, eta Andoingo txirrindulari eskolako amierako ospakizun modura lagun arteko irteera antolatu ohi du Olloki aldera. Goikoplazatik irten ziren, eta hamaiketako egin ondoren, herrigunera itzuli ziren. Bertan egin zuten taldeko argazkia, denboraldiari amaiera ematen diona. Merezitako atsedena hartu eta gero, datorren urteko martxoan ekingo diote errepideko denboraldi berriari.



Hamaiketako egin ondoren Goikoplazarako bidea hartu zuten.

Julen Loitegi 22 urte azpiko Munduko kopara

Julen Loitegi Mexikon arituko da Munduko kopa txapelketan, urriaren 9tik 18ra ospatuko dena. 22 urte azpiko lehiaketa da eta Guadalajara hirian jokatuko da. Jokoan dagoena ez da gauza txikia, izan ere bertatik aterako dira Bartzelonan jokatuko diren Munduko txapelketarako pilotariak. Maila bikaina eskaini beharko du, beraz. Lesio bat dela medio, zalantza askorekin ibili da. Aldiz, Iruñeko Mendillorriko trinketean egindako prestaketa saioetan sentazio onak izan ditu eta lesioa ahaztuta duela esan daiteke. Ea ba bere maila-



rik onena emateko aukera duen. Nazioartean eskarmen-tua pilotzen ari da Loitegi, azken hiru urteetan deialdi guz-

tietara deitu baitute. Selektioarekin brontzezko bi domina eskuratu ditu, eta Txema Gonzalez bere prestatzaileen ahotan "Julen finalera iristeko prest ikusten du". Ikusi behar Mexikon altuerak eta presioak zenbaterainoko eragiten duten urnietarraren sasoian. Zorte on!

KADETEAK

Iker Elgarresta eta **Aitor Aldunberri** bikoteak etxetik kanpo bigarren garaipena eskuratu du. Partida guztietan lehia nagusi izaten ari da, guztiak 22-20 emaitzarekin amaitu baitira.



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Euskara Zuzendaritza



KIROL ALBISTEAK

Eskualdeko ibilbideen eguna igande honetan



Belkoain, Andoaindik Usurbilerako bidean.

Familia eta lagun giroan egiteko moduko ibilbideak daude eskualdean, eta horiek sustatzeko Udalek urtean behin ibilbideetan barrena ibiltzeko eguna antolatzen dute. Aurten goa zortzigarren edizioa izango da, eta aurkezpenean adierazi zuten bezala, ibilbideen bitartez "Buruntzaldea eskualdea eta bere landa-ingurune naturala ezagutzeko aukera dugu. Bidezidor eta bide ezberdinak ditugu, landako paisaiatik barrena paseoz gozatzeko, belardiak eta basoak zeharkatuz eta baserri, baseliza, karobi eta, natura nahiz kultura aldetik, interesgarriak diren beste leku batzuetara hurbilduz". Ibilbideak ondoko hauek dira:

ANDOAIN-LASARTE-ORIA

Urdina eta urre zaharra 7.9 km. Oinez soilik egin daiteke eta mendiko oinetakoa beharrezkoa da.

ANDOAIN-URNIETA

Urdina eta berdea 4.8 km. Oinez edo bizikletaz

egin daiteke eta kirola egiteko oinetakoa beharrezkoa da.

ANDOAIN-USURBIL

Urdina eta laranja 14.9 km. Oinez soilik. Mendiko oinetakoa beharrezkoa da.

LASARTE-ORIA-URNIETA

Urre zaharra eta berdea 3.9 km. Oinez edo bizikletaz egin daiteke eta kirola egiteko oinetakoa beharrezkoa da.

LASARTE-ORIA USURBIL-AGINAGA

Urre zaharra eta laranja 9.00 km. Santuenetik barrena Aginagako Mapil ingururaino. Oinez edo bizikletaz egin daiteke eta kirola egiteko oinetakoa beharrezkoa da.

BUSEAN ITZULTZEKO ORDUTEGIAK:

AGINAGA	USURBIL	LASARTE	ANDOAIN	URNIETA
Ezpaldiko gasolindegia	San Inazio biribilgunea	Dorretzeko biribilgunea	Goiko plaza atzekaldea	Kiosko geltokia
12:00	12:07	12:15	12:30	12:40
13:00	13:07	13:15	13:30	13:40
14:00	14:07	14:15	14:30	14:40



BURUNTZALDEKO IBILBIDEAK VIII. EDIZIOA

Urriak 11, igandea
09:00-14:00.

Kontrol guneak:

- Usurbil: Santuenean Zorrotzeko zubiaren parean, eta Aginagako Mapil inguruan.
- Andoain: Udaletxea.
- Urnieta: Udaletxea.
- Lasarte-Oria: San Pedro elizaren ondoan.

Bideak eta seinaleak:

Panelen bitartez eta gezien bitartez seinaleztatuak daude. Ibilbide bakoitzean herri bakoitzari dagokion kolorea agertzen da seinaleetan:

- Urre zaharra: Lasarte-Oria.
- Berdea: Urnieta.
- Laranja: Usurbil.
- Urdina: Andoain.

Zanpatuz taldearen irteera Saioa mendira, hilaren 31n



Zanpatuz mendi taldeak egun osoko irteera egingo du datorren urriaren 31n. Saioa mendira izango da irteera, Baztan eskualdeko mendi garaiera eta Pirinioetako behatoki ezin hobea. Belate mendatean hasiko da irteera, 870 metrora, eta Saioara bidean Azkenatz (1.171 m.) eta Okolin (1.352 m.) gailurrak igoko dira. Ibilbidea bi ordu eta erdikoa da, samurra. Ez dauka aldapa handirik, eta bide gehientsuena belaze gainean egin behar da.

Saioa mendia behatoki ezin hobea da. Eguraldia lagun, Pirinioetako lehen bi mila metroko gailurrak ikusten dira gertu, baita Baztan go mendi gehientsuenak ere. Zorte apur batekin, Adarra mendia ere ikus daiteke Saioatik. Gailurretik Artesiaga mendatera jaitsiko da taldea, eta han autobusa izango du zain, Eugi herri-raino joateko.

Eugi herrian antolatuta da bazkaria, Quinto Real jate-

txean. Fernando Goñi pilotari ohia da nagusia. Menua mamitsua da mendi buelta egin ondorenerako: babarrun gorriak, orein haragi egosia, postrea, edariak eta kafea. Itzulera 17:00ak aldera izango da, Urnietara 18:30ak aldera iristeko.

Xauxar, Kantoi eta Gurian daude izena emateko zerrendak. Urriaren 25a izango da azken eguna. Ordainketa izen-ematearekin batera egin behar da: autobusa 10 eta bazkaria 20 euro (biak egin nahi dituenak 30 euro). Mendira joan nahi ez duenak bazkaltzera bakarrik joateko aukera izango du, bere autoan hurbiltzen bada, 20 euroren truke. Mendira bai, baina jatetxera joan nahi ez duenak ere bere kabuz bazkaltzeko aukera izango du. Kasu horretan autobusaren 10 euro bakarrik ordaindu beharko lituzke.

Irteera ordua goizeko 07:30ean izango da, Matxoko bus geltokitik, eta itzulera, iluntzeko 18:30ak aldera.

Saski denboraldia hastear

GANBARA SENM 70-35 ORDIZIA
Hasiera ona, abantaila handia lortuz. Lasaitasunez jokatu zuten gerora. Hiruko sei saskiratze egin zituzten, horietatik bost Rodriguezek egin zituen.

ALDAPETA 24-44 GANBARA INFM
Bide onean doazen seinale, adiskidantza partidan garaipen berria.

GANBARA JUBM-TOLOSA
Larunbata, 10. 12:15. Andoain

Urnietako neskek bikain

Urnietako nesken lehen taldeak bikain abiatu du denboraldia, bitik bi garaipen eskuratuz. Hirugarren jardunaldian bigarren sailkatuari tarte ateratzeko aukera bikaina dute, Intxaurdiren zelailan jokatu baitute.

ERREGIONALA

2. jardunaldia:
Urnietako 5-1 Allerru

Sailkapena:

1. Urnieta 6 puntu
2. Intxaurdi 4 puntu

3. jardunaldia:

Intxaurdi-Urnietako

Futbol emaitzak

Euskalduna eta Urnieta denboraldi hasiera honetan sailkapenaren lehen postuetan daude. Urnietarrek hirutik hiru partida irabazi dituzte, eta andoaindarrek Gipuzkoako mailarik gorenean ez dute oraindik partidarik galdu. Hiru irabazi eta berdinketa bat. Igo berriak dirrela kontutan hartuta, bikaina.

ERREGIONAL OHOREZKOA

4. jardunaldia:

Euskalduna 1-0 Touring

Sailkapena:

1. Tolosa 12 puntu
2. Mutriku 12 puntu
4. Euskalduna 10 puntu

5. jardunaldia:

Anaitasuna-Euskalduna

Urriak 10. 16:30.

PREFERENTE

3. jardunaldia:

Deusto 0-2 Urnieta

Sailkapena:

1. Urnieta 9 puntu
2. Sanpedrotarra 9 puntu
3. Hernani 9 puntu

4. jardunaldia:

Urnietako EAS08

Urriak 10. 16:00.

Oharra: Bilzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRA-BURUNTZAKO ASTEKARIAManuel Larramendi
Kultur Bazkuna

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Aldizkari honek
bi udalerrri hauen
dirulaguntza jasotzen du:

Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etxe etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.com
Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.com
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.com
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.com.
www.aiurri.com.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.com
Tel.: 943 300 732

Banatzaileak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia.
Huarte-Iruñea.

Agenda

URRIAREN 8TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero

Everest.

Larunbata, 10. 19:30/22:00.
Igandea, 11. 21:30.
Astelena, 12. 19:30/22:00.
Astearte, 13. 19:30.
Haurrentzat:
Minioms.Larunbata, 10. 17:00.
Astelena, 12. 17:00.

Amama.

Datorren asteburuan, filmaren estreinaldia Basteron.

Ikastaroa

Urnietan

Txinako medizina tradizionala, zertifikatadun ikastaroa. Ate irekiera jardunaldia.

Informazioa:

660 395 075

943 333841.

18:00. Salesiarrak.

Urriak 14, asteazkena.

Farmaziak

Eskualdea

Guardiako farmaziak.

Andoain:

Ansa, asteburu osoa.

Urnietan:

10, 11. Echebeste, Hernani.

12. Chucla, Hernani.

Eskualdea, gaeuz:

Etxebeste.

Elkano, 9. Hernani.

Bilkurak

Andoain

"Parte hartze hariak lotuz".

Urriak 13, asteartea:

Karrika-Etxeberrieta
18:30. Karrika elkarte.

Urriak 14, asteazkena:

Sorabilla - Bordaberri
18:30. Sorabilla, auzo elkarte.

Urriak 15, osteguna:

Landa-guneak, Goiburu,
Buruntza, Leizotz.
18:30. Pleno aretoa.

Erakusketa

Andoain, Bastero

"Bizibideak", Gartxot Arregiren eskutik. Ogibide ezberdinei buruzko autoertratua.

19:00. Erakusketa aretoa.

Urriak 9, ostirala.

Deialdia

Andoain

Caritasek irakasle boluntarioak behar ditu, laguntza klaseak emateko.

caritasandoain@yahoo.com

Antzerkia

Andoain, Bastero

"Kreditua", Zuhaitz Gurru-txaga eta Joseba Apaolaza.

21:30. Auditorioa.

Urriak 16, ostirala.

Ospakizuna

Urnietan

"Pausoka eguna", Urnietan. Egun osoko ospakizuna. Egitaraua, 3. orrialdean.
Urriak 11, igandea.

Jaiak

Urnietan

Xoxokako jaiak. Egitaraua, 4. orrialdean.
Urriak 10 eta 11.

Dantza

Andoain, Bastero

"Ilargiaren malkoa", Haatik konpainiaren eskutik.
21:30. Auditorioa.
Urriak 9, ostirala.

Hitzaldia

Urnietan, Lekaio

Hedabideak eta elkarbizitza: Gorka Landaburu, Martxelo Otamendi, Pablo Muñoz.
19:00. Lekaio.
Urriak 15, osteguna.

Lehiaketa

Andoain

"Andoain laburrean", eskal film lehiaketa. Gazte eta profesional ez diren helduei zuzendua.
Info: andoaindarrak400.eus

ZORION AGURRAK

ZORIONAK

Gure etxeko pottoko handienak, **Ander** Villarrek, hilaren 12an 8 urte beteko ditu. Zorionak etxeko guztien partez.

ANDOAIN

ZORIONAK

Dagoeneko lau urte jaio ziñanetik. Etxea kolorez ta alaitasunez jantiz. Begitxo hoiendiztirak jartzen gaitu pozik. Urte asko ta askuan Zorionak **Aritz!**


URNIETA

ZORIONAK

Urriaren 8an **Mikel**nek 13 urte. Mila muxu etxeko partetik. Orain arte bezain jator jarraitu. Maite zaitugu. Aita, ama, Markel eta Urki.

URNIETA

ZORIONAK

Zorionak **Beñat!** Urriaren 13an, 13 urte beteko dituzu. Egun ederra igaro dezazula! Muxu handi bat, etxeko bakoitzaren partetik.

ANDOAIN

ZORIONAK

Urriaren 13an 6 urte beteko dituzu **Irene**. Disfrutatu zure eguna. Muxu erraldoi bat. Etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK

**Ibaik**, etxeko mutikoak 8 urte beteko ditu urriaren 14ean, eta urriaren 12an bere izeba **Olaia**ak. Zorionak biei eta muxu potoak. Etxekoak.

URNIETA

1957an jaiotakoen bilkura

Urtero bezala, 1957an jaiotakoek bazkaria egingo dute. Aurten Txalakan izango da urriaren 31n, arrataldeko 14:00etan hasita. Izena eman nahi duenak 35 euro sartu behar ditu honako

kontu korrante zenbakian: 2095 5022 1064438285.

Izen-abizenak aipatu behar dira orainketa egiteko garaian.

Urriaren 23a da izena emateko azken eguna.

Literatur solasaldia

Andoingo Udal liburutegiak solasaldi berria antolatu du, hilabete honen amaierarako. Aukeraturako liburua Elkarrek argitaraturako "Lurtarra da begiratu" da. Antolatzaileek adierazi dutenez, "Xabier Etxabe idazlea bera gurekin izango da libu-

ruari buruz solasteko". Izena emateko:

Udal Liburutegian bertan, 943300615 telefonora deituz edo liburutegia@andoain.eus helbide elektronikora idatziz.

Urriak 27, asteartea.

19:00-20:30. Liburutegia.

Mikela ANSA GOENAGA andrea,

(Anbroxio Izuetauren alarguna).

Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko bazkide aitzindaria. Irailaren 30ean hil zen. Andoainen. 88 urte zituela.



Zu izan zaitugu lagun Mikela, zu aitzindari gordea, Bazkunarentzat kide jatorra gure lanaren goldea;

Onbera zinen eta zintzoa, euskaltzale ezin hobea; indar berriaz geroan ere, ernatuko den lorea.

Manuel Larramendi Kultur Bazkuna, Andoain, 2015eko urriak 6

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOHEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILADEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA